



KURDISTAN, ROJAVA

Amesgaiztotik ezin esnatu

Ehunka hildako eta ehunka milaka iheslari utzi ditu Turkiaren azken erasoaldiak Rojavan. Giza krisia handitu heinean, galderak ere pilatzen hasiak dira Siriako kurduen etorkizunaz.



Neskatila bere
hartzatxoarekin bala-zuloz
beteriko paretaren aurrean,
Tel Nasri herrian, frontetik
kilometro gutxira.



Tel Tamer eremuan aire eraso batean hildako gerrilari baten ama hiletan negarrez.

Hitzordua 14:00etan zen baina familiak aspaldi heldu dira. Tirbespiye-ko hilerrian agur esango diote gaur Yousif Ahmadi: bertan jaio zen duela 28 urte, eta bertan hilobiratuko dute. *Shehid namirin*, oihu egin du jendeak, “martiriak ez dira inoiz hiltzen”, laukote batek Ahmadien hilkutxa furgoneta batetik atera duenean. *Shehid namirin*, berriz, hilerriko eskaileretatik jaistean. Ahmadien aita, ama, anaia eta arreba, baina, isilik daude, negarrari eusten. Iragan urriaren 9an, Turkiak bere azken erasoaldia burutu zuen Siriako iparraldean. Bake-iturria izeneko operazioan airez bidali zituen droneak eta jaurtigailuak, eta lurrez jihadistak andana. Armak eta uniformeak gutxi ez, eta izen bat oparitu die Ankarak Al Qaeda eta gertuko milizien artean erreklutatutako borrokalariak: “Siriako Armada Nazionala”. Mugan zehar, lur esparru bat menderatzea zuten helburu, baita Siria iparreko autobide nagusia ere, M4 izenekoa. Tirbespiyen diote Yousif Ahmad “errepi-dean” hil zutela.

2018ko urtarrilean, Ankarak Afrin eskualde kurdua hartu zuen mendean, aire-indar eta jihadistek osatutako *Blitzkrieg* taktikaz. “Olibondo adarra” deitu zioten orduan. Azken erasoak egiteko aitzakia ondokoa izan da: Siriako Indar Demokratikoak-SDF (kurdu, arabiar eta kristauz osaturiko kontingente armatua) mugatik kanporatzea. Ankararen aburuz, “estuak” dira SDF eta PKKren arteko loturak. Hiru hilabete igaro dira ordutik eta bertako GKEek diote ia 300 zibil hil direla, eta Nazio Batuen Erakundeak 200.000 desplazatu baino gehiago. Serekaniye eta Gire Spi mugako eskualdeek osatzen dute “zero gunea”. Ihes egitea lortu dutenek, beste nonbait bizi diren senideengana jo dute. Gehienek, baina, abandonatutako eskoletan bukatu dute, edo Washokaniko errefuxiatu gunean.

LABIRINTO BAT

Lokatzen eta plastikozko itsasoa da Washokani. Bertan, dozena erdi bat zulararik dihardute lanean, gau eta egun. Honaino iristen den giza isuriari nekez

etsi ahal zaio. Kanpalekuaren sarrean, etxe prefabrikatu baten barruan, Ilargi Erdi Gorri Kurduaren arduradun batek dio 4.000 pertsona daudela bertan. “Egunero beste familia bat dator kigu”, gaineratu du. Erraza da plastiko zuriko denden labirintoan galtzea. Askotan ur-depositu gorriak hartu behar dira erreferentziatzat, edo denden artean eskegitako arropa. Bestela, beti jo daiteke kanpalekuaren erdian dagoen karpa handira. Ospitalea da eta, ezinezkoa dirudien arren, Ayan, Mahmud eta Suriya han jaio dira berriki.

Handik gertu, Ranyak dio Serekaniyetik oinez egin zuela ihes bere bi semeekin. Ez zegoen ibilgailurik. Senarra 2013an galdu zuen, hiria Jabhat al Nusraren (Al Qaeda adarretako bat Sirian) setiopean zegoela. “Gorriak ikusi arren, etxean gelditu ginen orduan. Baina oraingo honetan desberdina izan da dena”, dio 37 urteko emakume kurdu honek. “Airetik, toki guztietatik iristen ziren proiektilak. Eta gero jihadistak mehatxua zegoen... Beren eskuetan eroriz gero, bagenekien bortxatu egingo



YPG gerrilako soldadu bat, Tel Nasri-ko checkpointean, yihadista eta turkiarren aurkako frontetik kilometro gutxira.

gintuztela; gutako askok aurpegia lokaztu genuen, edertasun izpi oro estaltzarren”. Asko eta asko, ez zituen salbatu horrek. Ranyaren pareko dendatik, Hozamek keinu egin digu gerturatzeko. Gurekin hitz egin nahi du. “Bizilagun arabiar batek esan zidan mertzenarioek den-dena eraman dutela nire etxetik kamionetetan: telebista, hozkailua, altzariak... Argindarraren kableak ere ostu dituztela diote”, azaldu du 53 urteko nekazaria izan zenak. Hainbat lursailen jabea ez ezik, elikadura denda bat ere bazeukan Hozamek Serekaniyen. Egun pasaportea besterik ez zaio gelditzen. Eskuan du denbora guztian. Halako batean, ireki egin du, bera ere noizbait Serekaniyekoa izan zela argi gera dadin.

Labirintoari ekin diogu berriro. Aminak eta Alanek ere etxea galdu dutela esan digute. Eta Hozamek. Denek. 82 urteko Hamuden etxeari teilak ere kendu dizkiote. “Paretak besterik ez omen dira gelditzen. Jende honek ez dio beldurrik jainkoari”, esan du. Etzanda dago hiru mantaren azpian. Gaixorik eta nekata dagoela dio.

Zenbat testigantza jaso behar dira errefuxiatu gune batean? Nola aukeratu jendea? Zilegi al da aleatorioki egitea? Zer pentsatzen dute gutaz hitz egin gabe gelditu direnek? Eta hitz egin dutenek?

Jarraitu dugu. Hiyamek dio “behi bakar batekin” konformatuko zela. 15 zituen

Etorkizunak zer ekarriko duen jakin arte, zibilak egunero inprobisatzera behartuta daudela dirudi

Serekaniyen baina, etxearekin gertatu bezala, denak ostu zizkioten okupatzaileek. Abu Yousefen kasuan traktorea da. “Mertzenarioek 3.000 dolar eskatu dizkidate trukean baina ez nintzateke, inondik ere, berriz etxetik pasako. Jende

asko bahitzen ari dira”, azaldu du Gire Spiko gizasemeak. Antza, iheslari batzuek dirua eskaini diete jihadisteei beren etxeetan sartzen uzteagatik. Batzuk ez dira bueltatu. Istorio hori ere entzun genuen Hassakako eskola batean. Handik, Garibak esan zigun 100.000 dolar eskatzen dizkietela bere koinatua askatzeagatik. Familiak ez dauka ez diru kopuru hori, ezta bahitua bizirik dagoenaren seinalerik ere.

Testigantza gordin hauek jaso ditu Human Rights Watch nazioarteko erakundeak, besteak beste. Iragan azaroan, GKEak “zibilen exekuzioak, arpilatzea eta desplazatuen bidea moztea” leporatu zizkien Turkiaren babesa duten miliziei. Erasoaldia hasi eta egun gutxira “gerra krimenak” salatu zituen Amnistia Internazionalak.

ZIURGABETASUNA

Gerra ez da itzali. Su-etena adostu zen Washington eta Ankararen artean urrian, baina ia egunero errepikatzen dira kurduen eta islamisten arteko borroak. Bestalde, Turkiak eta Errusiak



ISISek suntsitutako eliza baten barnean haurrak futbolean jolasten, Tel Nasri herrian.



patrula amankomunak egitea adostu zuten. Ibilgailuen konboia kurduentzat iraingarria izateaz gain, Erdoganek indarrez lortutakoa aitortzen du Moskuk modu horretan. Mugan dagoen Derbesiyetik maiz igarotzen dira. Turkiak eraikitako harresiaren itzalpean dagoen herri hau bortizki bonbardatu zuen Ankarak urrian. Jendeak ospa egin zuen, Nadja Rihak tartean. Emakume kurdu honek 11 seme-alaba ditu, eta aiton amonak ere beraiekin bizi dira. Familiak Hassakako eskola batean baino ez zuen aterpea bilatu. Ikasgela batean hilabete eman ostean, Derbesiyera bueltatu ziren abenduan, jihadistarik ez baitago han egun.

“Dena erreta aurkitu genuen”, kexu da Riha. Antza, jaurtigailu batek etxe-ko argi-sorgailua jo zuen, baita alboan zeuden gasolio bidoiak ere. Suntsipe-na, alabaina, ez da aldaketa bakarra izan azken hilabeteotan Derbesiyen. Nadjaren etxetik berrehun metrora Siriako Armadaren kontrol postua dago egun. Erasoaldiaren ondorengo ha- maika akordioen artean, Damasko Rojavara bueltatzea ere adostu zen. Erabakiak kezka handia sortu zuen kurduen eta atzerritarren artean; es- kualdetik ospa egin zuten nazioarteko kazetari eta GKEko langile askok. Ia denak Irakeko Kurdistandik sartu ohi dira azken zortzi urteotan, pasapor- tean Siriako bisarik gabe.

Erregimenaren presentzia ageri- koa bada ere, armada Turkiako mugan zehar baino ez da zabaldu. Rojava eta Irakeko Kurdistan arteko muga-iga- robidea kurduen kontrolpean dago oraindik; hauxe izan da, hain zuzen, kurduen “zilbor hestea” Siriako ipar- e- kialdean. Proiektu politikoa dela eta, *de facto* administrazioak jarraitzen du eskualdea kudeatzen. Petrolio-aren etekinez baino ezin dira mantendu bertako segurtasun indarrak, orde- z- kariak, administratzaileak, irakasleak -eskola eta unibertsitatekoak-, gida- riak, kale-garbitzaileak, itzultzaileak... Sare hau noiz arte mantenduko den da galdera errepikakorrenetako bat Rojavan. Karwan, esaterako, Irakeko kurdua da baina bertako emakume batekin ezkondu zen duela lau urte. Bikoteak arropa denda bat ireki zuen Kamixlo hirian, eta beldur dira aurki itxi beharko ez ote duten.

“Gure negozioa erabat legala da he- mengo administrazioarentzat baina Damaskok ez du honen berririk, ez da

paperetan existitzen”, dio Karwanek. Dendaria Siriako presidente Bashar al Assad “erabat” bueltatuko delakoan dago. “Azken zortzi urteotan irekitako dendak, te etxeak, ile-apaindegiak, ho- telak eta abarrekin zer gertatuko den inork ez daki oraindik”, dio gizonak.

Siriako telebista publikoan eman- dako elkarrizketa batean, Assadek honela iragarri zuen: “Armak bereha- la entregatuko ez dituzten taldeak egon arren, gure azken helburua ge- rra hasierako egoerara bueltatzea da”. Esanguratsua zen, dena den, Siriako mandatarari gorenak “kurdu” hitza ho- gei aldiz baino gehiago errepikatzea. Analista askoren ustez, ez da Assaden interesekoa SDFren kontra borroka- tzea. Gerra luze eta bortitzak gogotik jo du bere indar armatuetan, eta Da- maskok inoz berrekuratu nahi baditu Turkiak oraindik mendean dituen Id- lib, Afrin, Jarabulus eta Serekaniye eta Gire Spi eskualdeak, SDFren laguntza beharko du.

Etorkizunak zer ekarriko duen ja- kin arte, zibilak egunero inprobisa- tza behartuta daudela dirudi. Baj- tiarrek, adibidez, Alepon bizi diren aitona-amonekin utzi ditu bere hiru seme-alaba, “egoera argitu arte”. Auto mekanikaria da, eta irekita dauka bere Kamixloko garajea oraindik.

“Zure ustez zer gertatuko da he- men?”, galdetu digu. Ez da galdera erretorikoa, erantzunaren zain dago. ●

Erreportaje hau Euskal Fondoak ba- besturiko “Exodoa, hondakinen artean ihesi” inbestigazioaren aurrerapena da.

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)